

TXOSTENA:

BITARTEKOTASUNEN ESKAINTZA – EKAINA / 2019 – posta elektronikoa

Aste honetan bitartekotasunak eskaini behar dira, posta elektronikoa erabiliz kontratazio-zerrendetan dauden pertsonekin harremanetan jartzeko.

Prozedura hori kontratazio-zerrendak egiteko eta kudeatzeko Akordioari jarraiki egiten da.

Prozedura

1- Destinoak aukeratzea:

- a) Izena emanda duten eremuetan bakarrik aukeratu ahalko duzu destinoa.**
- b) Nahi duten lanpostua edo lanpostuak bakarrik hautatu ahalko dituzu, edo destinorik ez hautatu:**
 - Aurreko kontratazio-zerrendetatik Osakidetzan lanpostu huts/bitartekotasun baten izendapena baduzu eta hori indarrean badago. Ez duzu izendapenaren dokumentazio-egiaztagiririk aurkeztu beharko.
 - Osakidetzako behin-behineko eta ordezkapeneko izendapena baduzu eta hori sei hilabete edo gehiagokoa bada (luzapenak barne) eta izendapen hori indarrean badago. Ez duzu izendapenaren dokumentazio-egiaztagiririk aurkeztu beharko.
 - Aldi baterako izaerarekin beste Herri Administrazio batean lan egiten ari bazara. Aipatutako egoera egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko duzu **3.- justifikatzeko puntuan ezarritako epean.**
 - Aurreko kontratazio-zerrenden bidez emandako errelebo-kontratu bat indarrean baduzu Osakidetzan. Ez duzu kontratuaren dokumentazio-egiaztagiririk aurkeztu beharko.
- c) Aurreko ataletan sartzen ez diren pertsonen **IZENA EMANDA DUZUN EREMUKO EDO EREMUETAKO DESTINO GUZTIAK** hautatu beharko dituzu.**

2.- Epea.

Formularioa bete eta gero, helbide elektroniko honetara bidali beharko duzu: LP-LC@osakidetza.eus ekainaren 26ko 14:00ak baino lehen, destinoak aukeratzeko azken eguna.

3.- Destinoak ez hautatzeko justifikazioa.

Destinoak hautatzen ez dituzula justifikatzeko eta bitartekotasunen zerrendatik baztertua ez izateko, indarrean dagoen Kontratazioko Akordioaren bigarren puntuko seigarren atalean aurreikusitako justifikazio-arrazoiren bat alegatu beharko duzu. Horretarako, justifikazio-arrazoi hori egiaztatzen duen dokumentazioa **ezarritako epean (ekainaren 26ra arte)** aurkeztu beharko duzu.

4.- Lanpostua ez onartzearen edo hautaketa ez egitearen ondorioak.

Esleitutako lanpostuei ezingo zaie uko egin. Horrek esan nahi du ez dela onartuko aukeratzeko epearen azken egunaren ondoren (2019ko ekainaren 26a) aurkeztutako justifikazio-dokumenturik. Esleitutako lanpostua onartzen ez baduzu, lanpostu hutsen zerrendatik baztertua izango zara epealdi jakin batez, Kontratazioko Akordioan ezarritakoaren arabera.

Era berean, lanpostu hutsen zerrendatik baztertuko zaitugu egoera hauek emanez gero:

- a) Derrigorrez destino guztiak hautatu behar badituzu baina ez badituzu hautatu eta ezarritako epean justifikazio-arrazoia dokumentuen bidez justifikatu ez baduzu.
- b) Hautaketa partziala eginez gero, aldi baterako beste Herri Administrazio batean lan egiten ari zarela alegatuta, eta aipatutako egoera justifikatzeko ezarritako epean hori egiaztatzen duen dokumentaziorik aurkezten ez baduzu.

5.- Destinoaren esleipena

Esleipena interesdun bakoitzak bitartekotasunen zerrendan duen hurrenkeraren eta adierazitako lehentasunaren arabera egingo da.

Posta elektronikoz jakinaraziko zaizu esleitutako destinoa zein izan den. Dagokion ESiko Pertsonaleko Zuzendaritza harremanetan jarriko da interesdunarekin lanean zein egunetan hasiko den zehazteko. Arau orokor gisa, oporraldiaren ondoren hasiko dira lanean (irailaren amaieran – urriaren hasieran).

Eragindako profesionalen artean ahalik eta hedapen gehien emateko, posta elektronikoa bidaltzeaz gain, ekintza hauek egingo dira:

- Kontratazioko web orrian oharra argitaratuko da.
- Kontratazio-zerrendetan izena eman zutenean helbide elektronikorik utzi ez zuten pertsoneri telefonoz deituko diegu eta baita posta elektronikoa errore-mezuren bat itzultzen duenean ere.

2019/06/19